

ARKEOLOGIA ETA GENEROA

Cristina Pozo Sevilla

Historiako Gradua, 2014-2015 ikasturtea

Tutorea: Jose Rodriguez Fernández

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila



LABURPENA

Jarraian aurkezten den testua lan bibliografikoa dugu Arkeologia eta Generoaren arteko hausnarketa bat aurkezten delarik. Diskurtsoan zehar, *genero* kontzeptuaren sorrera eta diziplinan sartzearen ibilbidea aztertuko da jarraian, Arkeologia Feminista, Generoaren arkeologia eta bestelako korronteen inguruan dauden eztabaidak aipatuz eta proposamen konkretu bat eginez. Proposamen hori Arkeologia *Engeneratu* terminoa izango delarik, zeinean, ikusiko dugun bezala, genero kontzeptua biltzen duten inbestigazio edo lanak izango lirateke, kategoria analitiko horren erabilera ikerketen erdigunean kokatzen dituztenak, alegia. Horren ondoren, Arkeologia Garaikideari dagokion inbestigazioen ibilbidearen laburpen bat eskaini ostean, lan hauetan *genero* kontzeptuaren integrazioaren balorazio eta gaiaren egoeraz jardungo gara ere. Horrela, Arkeologia Garaikidearen barne genero ikerketen balorazio eta gogoeta bat planteatuko da. Azkenik, generoaren ikuspegiaren txertatzeaz, edo lanean zehar azalduko diren arkeologia *engeneratuez* baliatzeaz iraganaren inguruko diskurtsoa aberastu dezakeen proposamen eta konklusio batzuk aurkeztuko dira.

Azken finean, lan honen helburua hurrengo litzateke: gaur egun aurrera eramaten diren inbestigazio eta lanek izan ahal dezaketen androzentrismo ikuspegia kolokan jartzea, eta aldi berean, horren existentziak dakartzan ondorioak agerian utziz: alde batetik, iraganaren ezagutza partzial bat sortzea, interes konkretu batzuen araberakoa eta gizonek Historiaren subjektu aktibo nagusiak izaten jarraitzea; bestetik, emakumeek iraganeko diskurtso eta ikerketetan izan duten, eta izaten jarraitzen duten, kasu batzuetan behintzat, bigarren mailako paperaz ohartarazi eta aldatzeko proposamenak aurkeztea.

Modu horretan, Historian zehar egon diren protagonisten papera kontuan hartuta planteatu dezakegu arkeologia *engeneratuen* alorretik datozen ikerketarako proposamen ezberdinak: iraganeko gizarte bakoitzaren genero identitate mailen eraikuntza nolakoa izan den, nola ikus daitekeen hori materialitatearen bidez eta erregistro arkeologikoan, nola ziren generoen arteko botere harremanak, sexualitatea... eta bestelako aspektu sozialak lanean zehar agertzen direnak. Sintetizatuz, lan hau iraganeko gizartearen inguruko jakintzak aberasteko eta areagotzeko helburu xumearekin planteatzen da,

genero kategoria analitikoaz baliatuta iraganeko gizartearen inguruko inbestigazioak burutzeko. Horretarako, berebiziko garrantzia dauka *genero* kategoriak, besteak beste, gizartea estrukturatzeko eta eratzeko elementu bat bezala ulertu behar duguna, eta honen azterketak, gizartearen alor sozial ezberdinen inguruko lanak sortu eta aberastu ditzakeela ere kontuan izan behar dugu. Horrekin batera ere, diziplinak duela gutxi arte izan duen androzentrismoaren ikuspegi hegemonikoari buelta emateko, inbestigazioak gaur egunetik egiteak iraganen proiektatzen ditugun aspektuez jabetuta, ikuspegi horretatik aldetzeko helburuarekin ere egiten da lan hau.

AURKIBIDEA

1. Sarrera: genero kontzeptua definituz.....	5.orr
2. Generoa arkeologian:.....	6.orr
2.1. Generoaren ikasketaren Historia Arkeologiako arloan.....	6.orr
2.2. Gaur egungo egoera.....	8.orr
2.2.1. Arkeologia Feminista eta Generoaren Arkeologia: eztabaida...9.orr	
2.2.2. Arkeologia Queer.....	11.orr
2.2.3. Ondorioak.....	13.orr
3. Generoa eta iragan garaikideko Arkeologia.....	15.orr
3.1. Kontzeptua definituz.....	15.orr
3.2. Gaur egungo ildo nagusiak.....	17.orr
3.3. Arkeologia Garaikidea eta generoa.....	18.orr
3.4. Etorkizunerako proposamen pertsonalak.....	22.orr
4. Konklusioak.....	26.orr
Bibliografia.....	28.orr

1. Sarrera: Genero kontzeptua definituz

Lan honi sarrera bat emateko komenigarria iruditzen zait, lehendabizi, *genero* kontzeptuaren sorrera eta definizioa aipatzea, garrantzitsua iruditzen baitzait lanaren garapenerako, izan ere, lanean zehar askotan erabiliko den kontzeptua da eta komenigarria da hasieratik definitzea.

Hortaz, *genero* kontzeptua John Money-k, *John Hopkins Baltimore* (Estatu Batuak) unibertsitateko psikiatra zena sortu zuen *genero* eta *generoaren eginkizunaren* kontzeptuak 1955. urtean, hermafroditismoaren inguruko lanak egiten zituelarik. Beraren aburuz, gizarteak oinarri biologikoari obedituta, sexu bat zuzenean sinesmen, tradizio eta jokaera determinatu batzuekin identifikatzen du. Alegia, generoaren identitate mailan faktore sozialek ezinbesteko eragina daukate eta beraz, genero identitate hori eraikuntza sozial bat dela esan dezakegu, eta ez, ordea, naturala edo berezkoa¹. Modu horretan, 1950eko hamarkadaren bukaeran psikoanaliaren alor espezifikoan² integratu eta jarraian, Robert Stoller psikoanalistak kontzeptua era zabalago batean garatuko du. Horrela, genero kontzeptua sortu eta ezarri zen, gerora Gizarte Zientzietako ikasketetarako erabilia izango dena.

Genero kontzeptua ondoren laburbiltzen den moduan definitu dezakegu: generoa sexu kategoriatik aldentzen den terminoa da, bigarren hau aspektu biologikoari eta gorputzen aspektu fisikoei erreferentzia egiten dio zuzenean, generoa ordea, sexuaren banaketan oinarrituta sexu kategoria bakoitzari gizarte bakoitzean egozten zaizkion esanahi ezberdinei erreferentzia egiten diolarik. Hau da, *generoa* gizarte konkretu batean bai emakumeei, bai gizonei ezartzen zaizkion jarrera, pentsaera, balore, portaera eta aktibitateak dira³. Horrekin batera ere, generoak beti erlazio bat eskatzen du, beraz, generoaren inguruan hitz egiterakoan ere erlazio batez hitz egiten ari gara, botere erlazio batez⁴, hots, generoa erlazio sozial batez hitz egiten digu.

1 DÍAZ-ANDREU, M., “Historia del Estudio de Género en Arqueología”, *Sagvntvum*, 15, Balentziako Unibertsitatea, 2014, 25.orr

2 Ibidem, 25.orr

3 HERNANDO GONZALO, A., “Sexo, Genero y Poder. Breve Reflexión sobre algunos conceptos manejados en Arqueología del Género”, *Complutum*, 18.bol, 2007,169.orr

4 Ibidem, 169.orr

Horrela, generoa elementu garrantzitsu bat litzateke gizartea estrukturatzeko orduan⁵, hau da, genero erlazioek funtsezko papera betetzen dute elementu estrukturatzaile gisa erlazio sozialak ezartzeko. Hortaz, generoa erlazio sozialen oinarrian dagoen identitate maila bezala ulertu behar dugu. Aspektu hauek kontuan izanda, iraganeko gizarteen ezagutzara ahalik eta modu egokien batean hurbiltzeko iraganeko genero erlazio horiek ikasi edo analizatu beharko genituzke, erlazio sozialak orokorrean ikastea iraganeko gizarte ezberdinak modu egoki batean analizatu eta ezagutzeko helburuarekin. Modu honetan sartu zen generoa diziplina arkeologikoan inbestigazio esparru berri bat bezala⁶, eta honen inguruan jardungo gara lanean zehar.

2. Generoa Arkeologian:

Behin kontzeptua definituta daukagula, komenigarria iruditzen zait ere *genero* kontzeptuak arkeologia sailean izandako prozesua eta bilakaera aztertzea, diziplinan sartzen den momentutik gaur egun bitarte. Jarraian, beraz, genero kontzeptuaren sorrera aipatuko dugu, jarraian Gizarte Zientzietako diziplina ezberdinetako ikasketetan sartu eta jasotzen duen bilakaeraz jardungo gara eta azkenik gure esparru espezifikora noiz eta nola iristen den ere nabarmenduko dugu.

2.1. Generoaren ikasketaren historia Arkeologiako arloan

Modu horretan beraz, behin genero kontzeptua sortuta eta definituta izan zela berrogeita hamarreko hamarkadan zehar, hirurogeiko hamarkadan zehar, ordea, kontzeptua zabaldu eta jendarteratuko da, hurrengo hamarkadetan zehar Gizarte Zientzietako zenbait alorretara iritsiz, orduko ikasketa ezberdinek generoaren inguruko aspektuak biltzen hasiko direlarik. Ildo horretarik, antropologiako esparruak bereganatuko du kontzeptu berria bere ikasketetan hasieratik. Nolanahi ere, Arkeologiaren esparruan ez da laurogeiko hamarkada arte generoaren kontzeptua biltzen zuen lanen bat agertuko. Estatu Batuetan, esaterako, arkeologia antropologiaren espezialitate bezala ikasten den heinean esparru batetik bestera igaroko da, baina ez modu automatiko bat bezala⁷.

5 FALCÓ MARTÍ, R., *La Arqueología del género: Espacios de mujeres, mujeres con espacio*, Centro de Estudios de la Mujer, Alikanteko Unibertsitatea, 2003, 143.orr

6 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 243.orr

7 SÁNCHEZ ROMERO, M., *Arqueología y Género*, Granadako Unibertsitatea, Granada, 2005, 15.orr

Hein horretan, ezin dugu alboratu 1970. hamarkadan zehar garatu zen mugimendu feministaren ondorioak, bigarren olatuko feminismoa deritzona⁸, mugimendu soziala izateaz gain eta gizartean eragin sakonak izateaz gain, eremu akademikora ere iritsiko dena, eta bere eraginak bertan, batez ere, 80ko hamarkadatik aurrera izango dira ikusgai. Mugimendu feministak, gure esparruari dagokionean, azaleratu zuen, batik bat, zientzian indarrean zeuden bide edo joera sexistak, arkeologiaren esparruan ere antzematen zirela⁹. Modu horretan, testuinguru konkretu honetan ulertu behar dugu Generoaren Arkeologia eta beste arkeologia berri horien sorrera, oro har, eta aurrerago azalduko dugun arren, non hasieratik mundu akademikoaren androzentrismoa kritikatu eta salatuko dute bi norabideetan: bai arkeologiaren esparru laboralean, hots, lanbidearen ariketan emakumeek pairatzen zituzten egoera desberdinak, diskriminazioa¹⁰ adibidez, eta baita iragana aztertzeke eta interpretatzeko ikuspegi androzentrikoa bera ere¹¹. Ondorioz, laurogeita hamarreko hamarkadan zehar emakumeen ikuspuntua integratzeko jardun arkeologikoan hainbat proposamen teoriko eta metodologikoak ugalduz joango dira zientziaren egitean androzentrismoaren nagusitasunaren aurrean¹².

Hortaz, Arkeologia Feministaren, Generoaren Arkeologiaren eta baita beste arkeologia batzuk ere (aurrerago azalduko ditugunak) agertuz eta garatuz joango dira, esan bezala, laurogeigarren hamarkadatik aurrera eta posprozesualismoa garatzen den heinean ere. Arkeologiaren barne arkeologia kritikoak agertuko direlarik (marxista, kolonialista eta feminista ere). Sintetizatuz, berebiziko garrantzia izango duten bi moldaketa ezagutuko ditugu hamarkada hauetan: batetik, genero kontzeptuaren sorrera eta garapena, Gizarte Zientzietako hainbat arloetan integratuz eta, bestetik, mugimendu feministaren ondorio zuzenak, zeinaren bidez mundu akademikoan sartu eta lan egingo duten emakume arkeologo batzuk emakumeen egoeraren inguruan hausnartuko dute. Ahalegin horren baitan, aipatzekoa da adibidez “Archeology and the study of gender”

8 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 242.orr

9 VIETRI, L., BRIZ I GODINO, I., “Arqueología de las mujeres: ciencia para la acción social. El aporte de M.^a Encarna Sanahuja Yll”, *Krei*, 11, 2010-2011, 87.orr

10 DÍAZ-ANDREU, M., “Historia del Estudio de Género en Arqueología”, *Sagvntvum*, 15, Balentziako Unibertsitatea, 2014, 27.orr

11 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 242.orr

12 Ibidem, 87.orr

izenburua duen lana, Margaret Conkey-k eta Janet Spector-rrek idatzitakoa, egoera horretaz jarduten duena.

Estatu Espainiarraren kasuan, esaterako, *Reunión Arqueológica Teórica* (RAT) delakoa aipatu behar dugu bilera horretan emakume profesional ugari bildu ziren Espainiako Arkeologiako hegemonia maskulinoaz ohartu eta hausnartzeko helburuarekin 1992. urtean Santiago de Compostelan. Horrela, eta bilera hau eman ostean, generoaren inguruko lan arkeologiko ugari publikatu ziren. Bilera horretan, adibidez, *¿Somos todas hombres?* eta *Hacia una Arqueología Feminista* bezalako lanak proposatu ziren, orduko Arkeologiako mundu akademikoan antzematen ziren erronka eta arazoaren aurrean. Beraz, bilera honen ostean esparru ezberdinetara helduko da ikuspegi feminista hau, esate baterako: museoetan lan egiten zuten emakume askok bilera horren ekarpenaz baliatuta, esposizioen joera androzentrikoaz ohartu ziren eta bide hori aldatzen hasi ziren¹³, Historiaurreko eta Antzinaroko arkeologia lanetan ere genero ikuspegi hau txertatuz joango dira. Ildo horretatik, eta bilera hau kontuan izanda ere, arkeologo emakume hauek, ikuspegi feminista horretatik baliatuz antzeman izan zuten funtsezkoa zela gaur eguneko gizartean emakumeek zituzten arazoez zein inbestigazioetan indarrean zeuden okertasunez jabetzea, besteak beste, iraganeko emakumeen analisi egokiago bat eragiteko¹⁴.

Modu honetan, Mundu mailako testuinguruan generoaren inguruko lanak ugalduz joan dira eta baita Espainiako testuinguruan ere, aurreko ekarpenak kontuan izan behar ditugularik. Horrela, esan dezakegu, 2000. hamarkadan zehar Generoaren Arkeologia onartua izan zela arkeologiako profesional gehienen artean eta honen inguruko liburuak ere biderkatu egingo direla¹⁵.

2.2. Gaur Egungo Egoera

Orain arte genero kontzeptuaren sorreratik ikasketa ezberdinetan txertatzearen bilakaeraren inguruan jardun izan gara, ikasketa horien garapena aztertuz. Jarraian, aldiz, gaur egungo egoeraren inguruan arituko gara oro har. Gaur egungo generoaren

13 DÍAZ-ANDREU, M., "Historia del Estudio de Género en Arqueología", *Sagvntvum*, 15, Balentziako Unibertsitatea, 2014, 28.orr

14 Ibidem, 28.orr

15 Ibidem, 28.orr

inguruko lanak oso anitzak dira eta korronte edo ildo ezberdinak hartu izan dituzte, esaterako: Generoaren Arkeologia, Arkeologia Feminista, *Queer* Arkeologia eta beste hainbat korronteak ere. Jarraian, hauen ideia nagusiak eta ekarpen nabariak aztertzea gustatuko litzaidake, azaletik bada ere:

2.2.1. Arkeologia Feminista eta Generoaren Arkeologia

Lehenengo eta behin, kontuan izan behar ditugu Generoaren Arkeologia eta Arkeologia Feminista. Esan beharra dago, hasieratik, bi izendapen hauekin eztabaida ugariak egon direla eta badaudela. Autore bakoitzak modu ezberdinean definitzen ditu kontzeptuak eta nahastea sortu daiteke kasu batzuetan, beraz, komenigarria iruditzen zait izendapen biak aztertzea, sortu daitekeen nahasketa ekiditeko edo, behintzat, gutxiagotzeko asmoz. Horrela, aditu batzuentzat Arkeologia feministak emakumeak iraganean zuen paperaz soilik arduratuko litzateke, emakumeen papera eta presentzia ikusgarria bihurtzeko eta garrantzia emateko asmoarekin, aldiz, Generoaren Arkeologiak genero kategoria guztiez arduratuko litzateke eta markatuko luke genero kategoria bera Historian zehar aldakorra izan dela, alegia, emakume eta gizon izatearen kategoriak aldatu izan direla tokia, denbora eta testuinguruaren arabera. Bereizketa hau defendatzen dituzten adituen artean, esaterako, Margarita Diaz-Andreu¹⁶ dugu aurreko iritzia mantentzen duena baita Ruth Falcó ere talde honetan sartu beharko genuke. Ruth Falcó-rentzat ere, Arkeologia Feministak emakumeen paperaz arduratzen da bakarrik, soilik emakumeen papera eta emakumeak jardun duten espazio eta ekintzak aztertuz eta lehenetsuna emanaz. Ikuspegi androzentrikoari soilik buelta ematea leporatu dio Arkeologia Feministari¹⁷, Generoaren Arkeologia bi generoak eta hauen arteko erlazioak aztertzen dituen heinean, aditu hauen aburuz.

Bestalde, Almudena Hernando bezalako espezialisten aburuz Generoaren Arkeologiak berezko esanahia galtzen ari duela mantentzen du, izan ere, askotan genero izendapena “emakumea” kontzeptuarekin identifikatzen da, orduan, Generoaren Arkeologia esaten denean errealitatean Emakumeen Arkeologia baten inguruan hitz egiten delarik, esan dugun bezala, emakumeek iraganean izan duten presentzia ikusgarri

16 SÁNCHEZ ROMERO, M., *Arqueología y Género*, Granadako Unibertsitatea, Granada, 2005, 17-18.orr

17 FALCÓ MARTÍ, R., *La Arqueología del género: Espacios de mujeres, mujeres con espacio*, Centro de Estudios de la Mujer, Alikanteko Unibertsitatea, 2003, 143.orr

bihurtzeko orduan, ideologia eta teoria ezberdinak proposatu gabe¹⁸. Alor honetan jantziak diren beste espezialista batzuk ere bereizketa honen alde jotzen dute, alegia, Generoaren Arkeologia Arkeologia Feministaren deribazio gisa ulertu daiteke, zeinean, Generoaren Arkeologiaren helburuak emakumeen inguruko informazio gehiago lortzean zentratuko lirarteke, nahiz eta berez genero edo indibiduo guztiak aztertzen duten, eta aldi berean, militantzia feministatik aldentzea edo karga ideologikorik ez izatea leporatu izan zaiolarik¹⁹, konnotazio politikoetatik ihes egin nahian eta objetibotasun bat aldarrikatuz²⁰.

Ondorioz, agerian geratzen da ez dagoela batere adostasunik izendapenak ezartzeko momentuan esparru honetan adituak diren arkeologo edo espezialista ezberdinen artean. Nolanahi ere, bereizketa bat egiten dute espezialistek, bakoitzak modu batean edo bestean izendatzen duten arren, eta hori argi geratzen dela uste dut. Bereizketa egiterako orduan bi multzo edo bi arlo ezberdinak banatzen dute ekimen arkeologikoa: alde batean emakumeak inbestigazioaren erdigunean jartzen dituzten ikasketak, eta beste batean ordea, emakumeei atentzioa ematen badiote ere ez da emakumeen iraganeko papera eta ekintzak erdigunean jartzen, gizonak ere aztertzen dituzte, genero erlazioen azterketa burutzeko helburuarekin. Dena den, batzuetan terminoak modu nahasian erabiltzen dira eta eskualdeko bereizketa ere ikusi ohi da terminoen erabileraren artean, alegia: Europako testuinguruan batez ere Generoaren Arkeologia erabiltzen da gehienetan, Australian eta Amerikako Estatu Batuetan aldiz Arkeologia Feminista²¹.

Egoera horren aurrean, hainbat aspektu aipatzea komenigarria iruditzen zait: Alde batetik, beharrezkoa ikusten dut emakumeen inguruko inbestigazioak eta ikasketak burutzea, besteak beste, oso gutxi arte haien papera Historiaren eragile eta subjektu gisa ez delako kontuan hartu eta haien presentzia agertzerakoan bigarren maila batean jarria izan delako. Bestetik, dena den, ez dut uste emakumeei dagozkien esparruak soilik

18 HERNANDO GONZALO, A., "Sexo, Genero y Poder. Breve Reflexión sobre algunos conceptos manejados en Arqueología del Género", *Complutum*, 18.bol, 2007, 168.orr

19 BERROCAL, M^aC., "Feminismo, teoría y práctica de una arqueología científica", *Trabajos de Prehistoria*, 66, 2.bol, 2009, 26.orr

20 Ibidem, 27.orr

21 SORENSEN, M., L., S., "Arqueología del Género en la Arqueología Europea: reflexiones y propuestas", *Metis Productos Culturales*, 10.Bol, 110.orr

aztertu behar direnik, hau da, generoaren kategoria analitiko hori kontuan hartuta iraganeko erlazio sozialak ulertzea komenigarria eta interesgarria dela uste dut. Generoaren azterketaren bidez, besteak beste, gai ezberdinak aztertzeko aukera eskaintzen baitu: generoaren eragina aztertu daiteke, generoaren materialtasuna, moldaketa, generoen arteko erlazioak eta antolaketa, nola antolatzen diren gizarte erlazioak...

Horren ondorioz, uste dut Sandra Montón Subías arkeologoak erabiltzen duen izendapena egokia dela testuinguru nahasi hau kontuan hartuz eta desadostasun honen aurrean. Espezialista honek *Arqueologías Engeneradas* izendapena erabiltzen du: eta izendapen horren azpian “sexua, generoa eta sexualitatearen inguruko lanak sartzen ditu bai iraganaren inbestigazioak egiten diren lanetan, bai profesioaren ariketaren ingurukoetan ere”²². Horrela, “generoaren inguruko lanak” edo arkeologia *engeneratuak* identifikazioa erabili dezakegu Arkeologiaren barneko joera hauek identifikatzeko, izan ere, generoarekin zer ikusia duten lanak biltzen dira ekimen horretan: emakumearen egoera eta papera profesioan, emakumearen inguruan egiten diren irakurketa eta interpretazioak, generoaren arkeologia, arkeologia feminista, *queer* arkeologia... Joera hauek komunean duten puntu garrantzitsuena genero kontzeptua dela esan genezake, batik bat, bakoitzaren analisia garatzeko funtsezko kategoria analitikoa delako.

2.2.2. Queer Arkeologia

Queer Arkeologia bera ere, dagoeneko eta aurreko ideiarri jarraituz Arkeologia *Engeneratu* bezala izendatu dugun multzoaren barne sartuko genuke. Dena den, jarraian arkeologia honen nondik norakoak azalduko ditugu. Horrela, 1990. hamarkadaren bukaeratik aurrera *queer* teoria bezala ezagutzen dena garatuz eta zabalduz joan zen heinean Arkeologiaren esparruan ere sartuz joan zen, batez ere, mundu akademiko anglosaxoian. Estatu mailan, dena den, ez du oihartzun handirik izan, egia esateko.

Queer terminoa Estatu Batuetan jaiotzen da 80. hamarkadan zehar gutxiengoak ziren talde ezberdinek (gay, lesbianak, transexualak, zuriak ez zirenak...) aurrera eramaten ari zituzten mugimendu sozialak izendatzeko, haiek beraiek

22 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 243.orr

autodeterminatzeko erabilitako terminoa zen. Berez, ez dago itzulpena egiteko hitz konkretu bat zeina ingelesez duen konnotazio guztiak biltzen dituen, baina, esan ahal dezakegu, *torcer* edo bihurritu, okertu hitzei erreferentzia egiten diela. Alegia, anormalak ziren pertsonak izendatzeko terminoa zen, batez ere, esparru sexualari zegokionean. Modu horretan, *queer* mugimenduak osatzen zuten pertsonak mespretxatzeko erabiltzen zen terminoari buelta eman zioten eta beraz, *bollera*, *marika*, *desbiatu* bezala ulertzen zen terminoei beste esanahi eman zioten: subertsibo, iraultzaile, anitza, plurala bezalako adjektiboak atxikituz²³. Ondorioz, modu horretan joan zen garatzen *queer* teoria eta hasieratik honen helburua generoa eta sexuaren arteko loturaren inguruko ideia batzuen inguruan hausnartzea izan da, alegia, identitate pertsonalaren inguruko hainbat aspektu eta batez ere, sexualitatearen inguruko ideietan zentratu delarik.

Hortaz, teoria *queer* honek Gizarte Zientziarako kritika sakona suposatu du batez ere sexualitatearen alorrean, izan ere, *queer* teoriaren bitartez agerian geratu da esparru honen baitan indarrean dagoen hetero-norma hori²⁴. Konkretuki, eta arlo arkeologikoari begiratuz, teoria honen ekarpen nabariena eta kritika nagusiena hori ere izan da: iraganaren irakurketan edo ikaskuntzan egiten den “heterosexualitatearen modelo hegemonikoaren proiektzioa ezartzea, besteak beste, hetero-norma hori kolokan jarri gabe”²⁵. Aldi berean, kontuan izan behar dugu proiektzio honek berak norabide patriarkalaren beste forma baten isla dela²⁶. Sintetizatuz, *queer* teoriaren ekarpena oso interesgarria dela uste dut agerian uzten baitu iraganeko gizarteak ikasterakoan Orainalditik egiten ditugun proiektzioak, esate baterako, sexualitatearen alorrean. Modu horretan ere, *queer* teoriak kolokan jartzen du genero eta sexuaren erlazio zuzena identitate mailari dagokionean²⁷, hots, teoria honen aburuz: sexu femeninoa den emakume batek ez du zertan emakume generoaren identitatea garatu behar, alegia, teoria honek indartu egiten du generoaren eraikuntza sozialaren ideia.

23 MORAL DE EUSEBIO, E., “¿Es el Sexo lo que la naturaleza a la cultura? Una aproximación queer para el análisis arqueológico”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 249.orr

24 Ibidem, 249.orr

25 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 243.orr

26 Ibidem, 243.orr

27 MORAL DE EUSEBIO, E., “¿Es el Sexo lo que la naturaleza a la cultura? Una aproximación queer para el análisis arqueológico”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 250.orr

Esan bezala, *queer* teoriaren eraginak modu argian antzemango dira 90ko hamarkadaren bukaerara eta 2000. urtetik aurrera teoria honek ekarpenetik lan arkeologikoak publikatuz joango dira, batez ere, Estatu Batuetako testuinguruan. Nolanahi ere, Europa mailan ez du hainbesteko oihartzunik izan, Ingalaterrako kasua salbuespena delarik²⁸.

Hortaz, esan dezakegu, *queer* teoriak hein handi batean generoaren inguruko lanak aberasteko erabilgarria izan daitekeela arkeologiaren ikasketetan integratuz gero. Izan ere, *queer* teoriak genero-sexu arteko erlazioa modu egokiago edo zabalago batean ulertzeko eskaintza egiten du, erlazioa hain mekanikoa ez dela ulertzeko orduan. Sintesian, jada generoa kategoria analitiko bat bezala onartzea iraganeko lanak aberastea ekartzen badu, besteak beste, Historiako momentu eta testuinguru konkretu batean erlazio sozialak eta genero-erlazioak ikasi eta ikertzeko aukera eskaintzen badigu, *queer* teoriaren aplikazioa arkeologian ere erlazio horietan sakontzeko aukera ere eskeintzen digu, esaterako, indibiduo ezberdinen identitate pertsonalaren inguruan ikastea eskaintzen du, hirugarren generoa bezala identifikatu diren indibiduen inguruan hausnartzea, eta beste adskripzio sozialak ere kontuan izatea identitatearen eragile gisa: etnia, adin, klase, sexualitatea²⁹...

Honekin batera ere, maskulinitatearen inguruko lanak sortzen ari dira eta baita identitate pertsonala sortzeko kontuan hartzen diren mekanismo konplexuen inguruko lanak ere, adibidez, Almudena Hernandok esparru honetan ekarpen interesgarri eta garrantzitsuak aurkeztu izan ditu azken urteotan³⁰.

2.2.3. Ondorioak

Ondorioz, azalduko Arkeologia egiteko joera ezberdin hauek jakintzarako oso erabilgarriak direla argi dagoela uste dut hainbat arrazoi direla medio: Alde batetik, kontuan izan behar dugu iraganaren inguruan daukagun informazioa geroz eta zabalagoa izateko aukera eskaintzen dizkigutela joera hauek, mundu akademikoan,

28 MORAL DE EUSEBIO, E., “¿Es el Sexo lo que la naturaleza a la cultura? Una aproximación queer para el análisis arqueológico”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 251.orr

29 MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 244.orr

30 Ibidem, 244.orr

batik bat, ahaztuak izan dituen gaien inguruan: emakumeen papera eta emakumeen presentziaren inguruan, mundu akademikoak izan duen marka androzentrikoa gogor kritikatu. Baina, bestetik, eta agerian utzi dugun bezala, generoaren inguruko lan eta inbestigazio hauek ez dira soilik horretan geratzen, ez dute soilik emakumeei dagozkien papera emateaz arduratzen, beste hainbat aukera eskaintzen dute, jarraian laburtuko ditugunak, atal honen ondorio orokor gisa: *Arkeologia Engeneratu* hauen joerak mundu akademikoaren hutsuneak agerian utzi ditu lehengo, alegia, nabarmendu izan du ikerlari bakoitzaren testuinguru eta pentsamoldea iraganeko gizarteak ikasterako momentuan azalarazi egiten direla, gure gizartearen, hots, gaur egungo egoeraren proiektzioak eta suposizioak eginez iragana berreraikitzeke momentuan. Horrek, zuzenean izan du eragina arkeologian eta gaur egungo inbestigazio askotan, adibidez, ikerlarien subjektibitateak³¹ aurrera eramandako jardunean islatu egin da, batik bat, iraganari egin zaizkion galderei adibidez. Ez da arraroa, beraz, gaur egun iraganaren inguruan dakigun alorren artean tradizionalki gizonezkoen alorrak izan direnen inguruan izatea, esaterako, gerra, ehiza, produkzioa, ekonomia³²... Ildo honetan beraz, arkeologiaren joera hauek iraganeko berreraikuntzak egiterako momentuan egiten ziren huts egite eta erroreaz ohartarazi egin du akademia eta hori oso aspektu garrantzitsua iruditzen zait.

Aldi berean, oso elementu eta aspektu konplexuak ikasteko baliagarriak dira *arkeologia engeneratu* hauen proposamenak aurretik aipatu ditugun gizartearen erlazioak ikertzeko momentuan, besteak beste: indibiduoek identitatea sortzeko erabiltzen diren mekanismoak gizarte bakoitzean, generoaren eraikuntza eta genero bakoitzak nola antolatzen da gizarte bakoitzean, genero-sexu arteko erlazioak, sexualitatearen inguruko ikerketak... Ondorioz, ikerketa arkeologikora begira oso esparru interesgarria dela uste dut, eta beharrezkoa aldi berean, iraganeko gizartearen inguruko jakintza sakondu eta osatzeko aurrera pasuak direla uste dudalako. Horrela, generoak inbestigaziorako linea ezberdinak eskaini³³ eta garatzen ari dira bai Estatu mailan, bai nazioartean ere bai.

31 MORAL DE EUSEBIO, E., “¿Es el Sexo lo que la naturaleza a la cultura? Una aproximación queer para el análisis arqueológico”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 251

32 ALARCÓN GARCIA, E., “Teoría y Método: Arqueología de las Mujeres y de las Relaciones de Género en la edad de Bronce del Sureste de la Península Ibérica”, *ArqueoGazte*, 2.zbk, 2012, 35.orr

33 ALARCÓN GARCIA, E., “Teoría y Método: Arqueología de las Mujeres y de las Relaciones de Género en la edad de Bronce del Sureste de la Península Ibérica”, *ArqueoGazte*, 2.zbk, 2012, 37.orr

3. Generoa eta iragan garaikideko Arkeologia

3.1. Kontzeptua definituz

Jarraian, Arkeologia Garaikidearen baitan generoaren sartze eta erabiltzearen inguruko hausnarketa bat egitea gustatuko litzaidake. Hasteko komenigarria iruditzen zait arkeologiaren esparru honen inguruko hainbat aspektu aipatzea: zer egiten den, zer egin den eta ikerketa nola izan den azaltzea egokia dela uste dut generoaren inguruko hausnarketa txertatzerako, modu orokorrean azalduko badugu ere.

Modu horretan, Arkeologia Garaikidea edo Arkeologia Industrialak delakoaren ibilbidearen hasiera 1962. urtean kokatzen da Ingalaterran gizartearen mugimendu zibil baten baitan, alegia, Londreseko geltoki batean kokatua zegoen arkupe baten eraistea burutu nahi zenean³⁴, eta beraz, testuinguru horretan ezartzen da arkeologia honen hasiera, mugimendu popular bati lotuta. Horrela, laurogeiko hamarkadan zehar diziplina gisa ezartzen joango da eta batez ere ondare eta honen babes eta zaintzari lotutako helburuak gailentzen ziren diziplinan. Laurogeita hamarreko hamarkadan murgildurik, diziplinaren instituzionalizazioa indartzen joango da eta, aldi berean, barneko gogoeta kritikoak ere agertuz joango dira: diziplinaren barne desilusio orokorraren sentimendua³⁵ nabaritzen zen, besteak beste, diziplinak hartutako joera zela eta, alegia, orduko Iragan Gertuko Arkeologia, edo momentuan identifikatzen zen bezala Arkeologia Industrialak, hartutako joera zela eta arkitekturaren eta teknikaren historiari lotutako aspektuak biltzen zituen, hausnarketa teorikoaren gabezia nabaritzen zelarik.

Pentsaketa horren ondorioz itxuratuz joango da Arkeologia Garaikidea eta ordura arteko izaera tematikoa eta patrimonio monumentalaren zainketari lotutako izaera ere alboratuz joango da beste hainbat ekintza eta inbestigazio ibilbideak aurrera eramateko helburuarekin, era horretan, Arkeologia Garaikidea definituz joango da eta Aro garaikide zein modernoaren hainbat inbestigazio eta ikerketak burutzen hasiko da, horrela: *La Arqueología Contemporánea se refiere a todo el universo material configurado por las sociedades industrializadas o las sociedades aceptadas por el capitalismo industrial, que es lo mismo que decir la práctica totalidad de las*

34 GUTIÉRREZ LLORET, S., *Arqueología. Introducción a la historia material de las sociedades del pasado*, Alikanteko Unibertsitatea, Balentzia, 1997, 79.orr

35 *Ibidem*, 83.orr

*contemporáneas*³⁶.

Nolanahi ere, kasu honetan Arkeologia Industrialaren terminoaren inguruan ere ez dago adostasunik eta hiru definizio eta, beraz, ekimen arkeologikoa praktikan jartzeko hiru modu proposatzen dira, ondoren aipatzen direnak: Alde batetik, Arkeologia Industrialak izaera tematikoa duen praktika gisa ulertzen den terminoa dugu, hots, Arkeologia Industrialak industriaren arkeologia bat izango da, ikuspegi diakroniko batetik ikasita, modu honetan izan zen ulertuta hasiera batean, dena den. Bestetik, industria termino modu orokorrago batean ulertzen duen ikuspegia ere aurkitu dezakegu, eta horren ustez, produkzio modu konkretu bati erreferentzia egiten dion terminoa bezala ulertzen da, hots, kapitalista. Ikuspegi honen arabera, orduan, produkzio modu konkretu baten objektu materialak aztertuak izango dira eta produkzio modu horren, alegia, kapitalistaren baitan sortutako gizartearen azterketa ere bilduko luke. Hirugarren eta azkenengo definizioak, Arkeologia Industrialak bera Mundu Moderno eta Garaikidearen Arkeologiaren baitan ulertzen dute kronologia horietako gizartearen ikerketak bultzatu dituztelarik. Sailkapena Juan Antonio Quirós Castillo eta Belen Bengoetxea Rementeríaren manualean³⁷ agertzen den sailkapenean oinarritu izan naiz, eta liburu horretan bertan agertzen den proposamenarekin bat ere egiten dut, hau da: Arkeologia Industrialak Mundu Garaikidearen Arkeologiarekin identifikatzen dute eta honen helburua, esaterako, gizarte horren ikerketa izango litzateke objektu edo erreto materialen bidez³⁸. Alegia, ezin dugu soilik aspektu teknologiko zein prozesu produktiboak bakarrik aztertu, horiek aztertu dezakegu baina gizarte baten barnean ematen diren aldaketak eta transformazioak direla kontuan hartuta gizarte eta testuinguru hori ere ikertzea komenigarria da, iraganaren ikaspen orokor eta egokiago bat izateko helburuarekin. Beraz, lanean zehar ere Arkeologia Garaikideari erreferentzia egingo diogu azalpen hau kontuan izanda.

36 GUTIÉRREZ LLORET, S., *Arqueología. Introducción a la historia material de las sociedades del pasado*, Alikanteko Unibertsitatea, Balentzia, 1997, 85. orr

37 QUIRÓS CASTILLO J. A., BONGOETXEA B., 2010, *Arqueología (III) Arqueología medieval y postmedieval*, UNED, Madril, 2010

38 Ibidem, 521.orr

3.2. Gaur Egungo ildo nagusiak

Gaur egun nagusitzen diren ildo nagusien artean industrializazioari lotutako arkeologia modu sakon batean garatu izan da, batez ere, Euskal Herriari dagokion testuinguruan. Ekimen horretan ez da soilik industrializazioaren aspektu teknikoak edo soilik aztertu, honi lotutako beste hainbat aspektu eta inbestigazioak egin izan da, adibidez: Mundu Garaikidean zehar emandako aldaketa teknologikoak, arkitektura industrialak, langileriaren etxebizitzak zein auzoak, lan espazioak, paisai industrialak³⁹... bezalako aspektuak biltzen dituzten inbestigazio arkeologikoak burutu izan dira garaiko gizartearen ikuspegi eta jakintza holistiko bat izateko helburuarekin, alegia, iraganaren inguruko jakintza geroz eta aberatsagoa eta konkretua izateko.

Beste ekimen nagusi bat eta gaur egun garrantzia hartzen ari den inbestigazio ildo nagusi bat Konfliktuaren Arkeologia izan da. Alegia, testuinguru garaikidean eman izan diren konfliktu belikoen azterketa eta ikerketa arkeologikoari lotutako inbestigazio esparrua. Gure testuinguru konkretuan, zehazki, Gerra Zibileko eta Frankismo garaiko Arkeologia izango lirateke ekimen horretan nagusitzen diren praktikak.

Konfliktuaren Arkeologiari dagokionez, azken urteotan geroz eta ikerketa eta argitalpen gehiago egin izan dira, oro har, Historian zehar emandako konfliktu belikoetara hurbiltzen diren ikerketak orokorrean, hau da, ez da soilik testuinguru garaikide batera mugatzen. Ugarituz joan dira honen inguruko publikazio zientifikoak, esate baterako, gaiari lotutako aldizkaria sortu izan da (*Journal of Conflict Archaeology*), konferentzia sail erregularra eta Europar eremuan ere lan akademikorako talde bat osatu da (*ESTOC* delakoa)⁴⁰, praktika honen ekimenaren garapena eta potentzialitatea islatuz. Dena den, lan honetan zehar ez dugu hau helburu, beraz, konfliktuaren arkeologiaz hitz egiterakoan mundu garaikideari erreferentzia egingo diogu, hots, garaikideko arkeologiari.

Hortaz, Arkeologia Garaikidearen baitan ere eta Espainiarako kasuan zehazki, Gerra Zibileko eta baita geroko diktadurari lotutako ikerketa arkeologikoak ere burutzen

39 QUIRÓS CASTILLO J. A., BENGOETXEA B., 2010, *Arqueología (III) Arqueología medieval y postmedieval*, UNED, Madril, 2010, 618-624.orr

40 RUBIO CAMPILLO, X., SANCHEZ-FELIPE LLORENTE, M., "Arqueología del Conflicto", II Jornadas de Jóvenes en Investigación Arqueológica JIA (Tomo I), 2009, 182.orr

hasi dira, esparru askoetara iritsiz: batailak eman ziren zonaldearen miaketak eta indusketak, hobi komunetako gorpuak lurpetik ateratzea, fortifikazio eta lubakien azterketa geoarkeologikoa, memoriari lotutako aspektuak⁴¹, errepresiorako esparruen ikerketak...

Horrela, aspektu orokor hauek kontuan izanda nire helburua hurrengoa litzateke: genero perspektibaren integrazioaren inguruko hausnarketa plazaratzea garaikideko arkeologia testuinguru honetan mugitzen garelarik.

3.3. Arkeologia Garaikidea eta Generoa

Zentzu honetan, testuinguru bibliografikoa osatzen saiatu naiz, geroko analisia egiteko oinarri gisa. Prozedura honetan, hitz gako adierazgarriak erabiliz obra orokorrak eta ikerketa espezifikokoak biltzen saiatu naiz, baina ahalegin horrek ez ditu emaitza oso arrakastatsuak eman eta igarritako hutsuneek problematika bat salatzen dute. Ez dut topatu orokorrean *genero* hitzarekin batera agertzen diren arkeologia garaikideari lotutako bibliografiarik. Berdina gertatzen da *emakumea* hitza erabiliz. Nahiz eta honek ez duen esan nahi generoari eta emakumeei egindako erreferentziak existitzen ez direnik, hutsune hau esanguratsua dela uste dut. Izan ere, Iragan Hurbileko Arkeologia garatzen eta nolabait esateko gestazioan dagoen diziplina bat bezala ulertzen dut, alegia, ekimen eta praktika asko jorratu daitezke oraindik ere, beraz, hutsune horren azalaratzea ere garrantzitsua iruditzen zait aldi berean, besteak beste, ibilbidearen hasieran ohartaraztea gerora sortu daitezkeen hutsuneak betetzen lagundu dezakeelako.

Jarraian, bilaketa hori burutu eta geroko taula bat aurkezten dut, honetan, bilatzaile ezberdinetan sartutako hitz gakoak eta bilaketaren emaitzak aurkezten dira. Taula honen helburua, beraz, esan bezala, Iragan Gertuko Arkeologia genero perspektiba batetik ikusita aurkezten dituen hutsuneaz ohartarazi eta ikusgai bihurtzea da, hain zuzen ere, Arkeologia Garaikideak inbestigaziorako aukera asko eman ahal dituelako eta garrantzitsua iruditzen zait genero perspektiba ere agertzea.

41 RUBIO CAMPILLO, X., SANCHEZ-FELIPE LLORENTE, M., "Arqueología del Conflicto", II Jornadas de Jóvenes en Investigación Arqueológica JIA (Tomo I), 2009, 69.orr

Erabilitako hitz gakoak	Arkeologia Garaikidea +Emakumea +Generoa	Arkeologia Industriala +Generoa +Emakume	Gerra Zibilaren Arkeologia +Emakumea +Generoa	Arkeologia Feminista +Arkeologia Garaikidea	Arkeologia eta Generoa
Bilatutako lekuak					
UPV/EHuko liburutegiko katalogoan	Eraitzarik ez (bi konbinazioetarako)	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	3
Google Scholar	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	1	Eraitzarik ez	20 baino gehiago
CSIC-eko Aldizkari biltzailea	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	20 baino gehiago
Dialnet biltzailea	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	20 baino gehiago
REBIUN katalogoa	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	20 baino gehiago
Academia.edu	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	21
Espainiak Liburutegi Nazionala	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	5
“Centro de Ciencias Humanas y Sociales del CSIC”	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	Eraitzarik ez	9

Honen ondorioz, eta taula egiteko prozesuaren ondorioz, zera iruditzen zait nabarmengarria: Alde batetik, bilaketa gazteleraz egin izan da emaitzak, hein batean, zabalagoak izateko helburuarekin. Beste alde batetik, agerikoa da generoaren inguruko lanik ez dagoela Arkeologia Garaikidearen alorrean behintzat. Izan ere, arkeologia eta genero hitzen bidez bilaketa egiterakoan emaitza gehiago agertu izan dira, hots, arkeologiaren beste esparru kronologiko eta tematiko nagusietan generoaren inguruko ikerketa ugari egin izan dira.

Historiaurrean esaterako, ikerlan eta inbestigazio ugari desberdinak egin ohi dira generoari lotutakoak: profesioan emakumearen inguruko egoeraz arduratzen diren lanak; Historiaurreko garaiari dagokion kronologiaren bitartean emakumearen presentzia bisibilizatzeaz arduratu izan direnak; iraganeko ikerketa erabiltzen den hizkera sexista (maskulino generikoa, “el hombre” bezalako aspektuen inguruan

hausnartuz) eta egiten diren errepresentazio, irudi eta esposizioek, oro har, inplizituki daramaten izaera androzentrikoaz ere ohartarazteko lanak burutu dituzte; eta bukatzeko, baita generoaren identitatearen sorrerako elementuen azterketa, genero erlazioen hierarkia⁴²... Alegia, arkeologia egiteko moduaz hausnartu dute⁴³ Historiaurreko alor ezberdinetan jarduten duten ikerlari askok, jada aurretik azaldu dugun bezala. Hortaz, esparru honetatik sortu eta birplanteatu diren aspektu ugarietz elikatu zitezkeen Iragan Hurbileko arkeologiak generoaren ikuspegia txertatzeko euren lanetan, batik bat.

Izan ere, zer egin da Arkeologia Industrialean eta Gerra Zibileko Arkeologian genero ikuspegi batetik ulertuta? Arkeologia industrialari dagokionean, eta Euskal Herriko testuinguruan zentratuz, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kasuetarako sintesi liburuak argitaratu izan dira zeinetan hiru probintzien ondasun industrialak eta egindako esku-hartze arkeologikoak biltzen dituzten: hauetan, oro har, ekonomia ikuspegi batetik egindako lanak direla esan dezakegu, arkeologia industrialaren definizio gisa aktibitate industrialei lotutako arkeologia korrontetik egindako lanak dira eta hortaz, ekonomiari eta industria berari lotutako aspektuak barnebiltzen dituzte. Ikuspuntu tekniko eta ekonomikoa daukate argitalpen hauek, aspektu sozialak gutxi bilduz eta generokoak ez dira agertzen ere.

Jarduera honetan, alegia, historiografiak emakumeen paperaz, inplikazioaz, genero rolez, genero hierarkiaz, familiaren antolamenduaren inguruko aspektuak jorratu izan ditu salbuespen batzuetan hots, industrializazio prozesuaren baitan eman ziren aldaketa ekonomiko, politikoekin batera ere gizarte aldaketak ere eman ziren: lanaren banaketa sexuala, emakumeen presentziaren murrizketa esparru laboralean, egoera berriari egokitzeko aldaketak erreprodukzio lanetan⁴⁴... Hau da, fabriken inguruan egon zitezkeen elementu ekonomikoez aparte, orduko gizarteak pairatu zituen aldaketen alorreko lanak burutu dira, genero ikuspegia txertatzen saiatu dutenak.

42 FALCÓ MARTÍ, R., *La Arqueología del Género: Espacios de Mujeres, mujeres con espacio*, Centro de Estudios sobre la Mujer, Alikanteko Unibertsitatea, 2003, 146.orr

43 CINTAS PEÑA, M., “Género y Arqueología un esquema de la cuestión”, *Estrat Crític*, 6, 2012, 178.orr

44 PEREZ-FUENTES HERNÁNDEZ, P., *Vivir y Morir en las Minas. Estrategias familiares y relaciones de género en la primera industrialización vizcaína: 1877-1913*, Servicio Editorial, Universidad del País Vasco, Bilbao, 1993, 98.orr

Bestalde, Gerra Zibileko Arkeologia dagokionez, eta jada azaldu dugun bezala, gerra zibileko edo hobe esanda gerra zibilari lotutako aztarna arkeologikoak aztertu izan dira, hots, gerra zibilari eta gerra ondoko garaiei lotutako testuinguru arkeologiko ezberdinak, horien artean hurrengoak aipatu genezake: gerra fisikoki eman zen testuingurua (trintxerak, bunkerrak, bolborategi, babeslekuak), konflikto belikoan erabilitako makinaria ezberdina (hegazkin, bukeak...), sartze zentroak (kontzentrazio esparruak, kartzelak, kuartelak...) oroitzapenezko monumentuak, fosen exhumazioa...⁴⁵

Eta testuinguru horretan non geratzen dira emakumeak? Konflikto belikoak aztertzerakoan badirudi bakarrik gizonen inguruan aritzen garela, nahiz eta hala ez izan. Batzuetan, emakumeen papera bigarren maila batera baztertzen da, batez ere, tradizionalki gizonetzko esparru bezala ulertu izan ditugun testuinguruetan. Horren adibide zuzena, esaterako, bai industria eta bai gerra izan daitezkeelarik.

Gerra Zibilari dagokion esparru desberdinetan, lan historikoak direla medio badakigu emakumeak gerrako esparru horietan ere presentzia izan zutela, batik bat, errepresioaren objektu ere izan ohi dira emakumeak, eta askotan emakumearen kondizioatik izan da, alegia, konfliktoan emakume baten inguruko familia kide edo lagun bat Errepublikaren alde jotzen zuten indarren aldekoa izatean emakume horrek errepresio eta irainen objektu izan zitekeen, emakumeen gaineko errepresio espezifiko bilakatuz. Frontean ere parte hartu zuten emakumeak eta aspektu horren baitan genero botere erlazioak analizatuak izan ohi dira⁴⁶, Brigada Internazionalan⁴⁷ parte hartu zuten emakumeen papera ere aztertua izan da, kartzeletako egoera, “maki”-en borrokan ere parte hartze aktibo eta garrantzitsua izan zuten... Hau da, emakumeak eragile subjektu historiko aktiboak aurkeztu izan dute lan historiografiko ugarietan, eta ez ordea konflikto belikoan parte hartu ez zuen talde bat bezala, eta konfliktoaren ondorio kolateralen arteko talde gisa.

45 MONTERO GUTIERREZ, J., “Tras las líneas. ¿Arqueología del Conflicto o conflicto en Arqueología?”, *Actas de las Séptimas Jornadas de Patrimonio Arqueológico de la Comunidad de Madrid*, Madril, 2013, 223.orr

46 MARTINEZ RUS, A., “Mujeres y Guerra Civil: Un Balance Hitorigráfico”, *Stud. Hist. Hª. Cont.*, 32, 2014, 336.orr

47 *Ibidem*, 335.orr

Horren adibidea *Bustarviejo* izena duen kontzentrazio-esparru frankista batean egindako interbentzio arkeologikoa dugu⁴⁸. Honetan esaterako, kontzentrazio esparru horren arrastu eta elementu materialak aztertu izan dira eta egitura horietatik gertu garaiko etxebizitzak izango ziren txabola batzuen arrastoak ere topatu, induskatu eta ikasi dira. Horrela, ondorioztatu izan dute inbestigazioaren buruek txabola horiek preso zeudenen familiarako egingo zituztela presoek haiek beraiek. Lan honetan, adibidez, familiari erreferentzia egiten bazaio ere, tratamendua bigarren mailako bat dela esan dezakegu, alegia, ez dira aztertzen bestelako aspektuak.

Ildo horretatik jarraituz, beraz, nabarmengarria iruditzen zait aipatzea lan honetan zehar arkeologia *engeneratuek*, generoari lotutako inbestigazioa arkeologikoen, sortu eta eraiki ahal dezaketen aukeren inguruan hausnartu naizela uste dudala, eta beharrezkoa iruditzen zait ere, hortaz, esparru honen inguruan ere gure planteamenduak berrikustea, alegia, esan nahi dudana zera da: arkeologiaren inbestigazio lerro ezberdinei dagokionez generoaren teoriak inplikatzeko dituen aspektu ugariak bildu dira eta integratuz doaz bai mundu akademikoan eta horrek sortzen duen jakintzan ere, inbestigazio desberdinen arabera. Zergatik ez dugu Iragan Hurbileko Arkeologiaren esparruan ordea baliabide eta tresna hauek erabiltzen? Aurretik jada, argumentatu dugu arkeologia *engeneratuen* helburua ez dela soilik emakumeek izandako presentzia ikusgai bihurtzea, baina bada zutabe garrantzitsu bat gure iraganaren inguruko jakintzak euren presentzia existitzen ez bada, haien presentziaren inguruan behintzat hausnartzea.

Ondorioz, aipatutako joera hauen inguruko galdera batzuk plazaratu nahi nituzke, hausnartzeko helburuarekin: Non daude orduan emakumeak? Genero perspektiba txertatu da ikerketa hauetan? Alegia, badirudi gerra eta industria bakarrik gizonen presentzia biltzen dituela: Hala da? Zergatik ez dira txertatu arkeologia feminista edo *engeneratu* horietatik egindako ekarpenak gaur egungo edo arkeologia garaikide honetako ekimenerako?

3.4. Etorkizunerako proposamen pertsonalak

Egoera honen aurrean, arkeologiaren esparruan dagoen hutsuneaz jabetuta, hori

48 FALQUINA APARICIO, A. et al., “Arqueología de los Destacamentos Penales del Franquistas en el Ferrocarril Madrid-Burgos: el caso de Bustarviejo”, *Complutum*, 2008, 19. bol, 2 zbk, 175-195.orr

betetzeko proposamen batzuk aurkeztu nahi nituzke: Alde batetik, interesgarria iruditzen zait arkeologia *engeneratu* hauek Iragan Hurbileko Arkeologiaren praktikan txertatzeko metodologia edo proposatzea eta, bestetik, Iragan Hurbileko arkeologiaren baitan ikuspegi hau txertatuta interesgarriak izan zitezkeen inbestigazio ildoak proposatzea ere gustatuko litzaidake.

Dakigunez, metodologia bat inbestigazio bat burutzerako orduan horrek jarraitu beharko lituzkeen prozedurak eta horiek analizatzeko teoria dela esan dezakegu⁴⁹. Modu horretan, lan honetan aurkezten den metodologia, inbestigazio eta metodologia feministaren ildotik jarraitzen du, besteak beste, sesgo androzentrikoa zein sexista duen jakintzarako prozedurekin apurtzea lortu nahi baldin badugu, iraganeko gizarteak ikasteko erabiliko dugu metodologia bera ere ezin da antrozentrikoa edo sexista izan⁵⁰. Izan ere, kontuan izan behar dugu gaur egun baliteke inbestigazioetarako erabiltzen den metodologia bera ere gure gizarte patriarkalaren sesgo androzentrikoa bertan inplizituki egotea. Horren adibide, orain arte aztertu duguna izanda daiteke, gaur egun oraindik irauten du sesgo hori inbestigazioa planteatzerako orduan, hots, zeintzuk izango dira inbestigazioaren gai zentralak eta zein izango den erabiliko diren metodologiak⁵¹.

Gauza da, hortaz, gai zentral horiek aukeratzerako momentuan, batzuetan ez garela konturatzen gizonei berezkoak zaien esparruak izaten direla askotan, esate baterako, arkeologia industrial zein gerra zibileko arkeologiako inbestigazioetan gizonak izan da subjektu aktibo nagusia gehienetan. Joera hori izan dugu duela urte batzuk arte, hain zuzen ere: *Objetividad frente a subjetividad; el científico como persona que conoce frente a los objetos de su investigación; la razón frente a las emociones; la mente frente al cuerpo: en todos estos casos el primer elemento se asocia a la masculinidad y el segundo a la feminidad*⁵². Alegia, joera horrek, gizonezkoen identitateari lotutako ezaugarri horietan oinarritu izan da ezaguera sortzeko erabili izan direnak. Ildo horretatik ere, Joan Gerok proposatu du beharrezkoa dela ikustea nola banatzen diren lan arkeologikoak, ikerketa lantaldeetan ematen den hierarkia ikustea,

49 HARDING, S., "Existe un método feminista", 1998, 12.orr

50 Ibidem, 15.orr

51 MARTINEZ, L.M^a, BIGLIA, B., LUXÁN, M., FERNANDEZ BESSA, C., AZPIAZU CARBALLO, J., BONET MARTÍ, J., "Experiencias de Investigación Feminista: propuestas y reflexiones metodológicas", Athenea Digital, 14, 2014, 6.orr

52 Ibidem, 7.orr

eta landa-lanak proposatzen duen dinamika psiko-soziala aztertzea: jakintza arkeologikoa nola produzitzen den aztertzeko⁵³.

Modu horretan, funtsezkoa da ulertzea gure iturri zuzenak objektuak direla, alegia, erregistro materiala eta horren analisi zientifiko bat eginez lortuko dugula ezagutza sortzea Iraganaren inguruan. Horretarako, kontuan izan behar dugu gure helburua, aldi berean ere, zientzia arkeologikoaren baitan pertsonak ere lekua izan behar dutela, haien esperientziak, gertakizunen narrazioak ere aspektu garrantzitsua izan beharko luketela. Alegia, ezin dugu ahaztu objektuak subjektuekin guztiz lotuta daudela eta objektuak aztertzerakoan erabili zuten pertsonen inguruko informazio ugaria eta aberatsa eman dezaketela. Gizarteak pertsonen osatzen dira baina baita objektuez ere, eta hein horretan arkeologiaren papera zera da: subjektu horien bizitzan materialitate horrek eragiten, suposatzen, adierazi nahi zuena⁵⁴.

Metodologiaren barne ere, interdiziplinaritatea ere sartuko nuke. Dagoeneko aipatu dut lan ugari egin direla egin direla bai historiografikoak, bai ahozko testigantzak erabilia, eta baita antropologiatik ere. Azken honen ekarpenean artean *Andamios para una Nueva Ciudad*⁵⁵ lana dago, adibidez, zeinean espazioen azterketa bat egiten den genero perspektiba batetik, eta horren arrazoiak plazaratzen ditu. Aldi berean, Arkeologia diziplinaren barne ere lan ugari planteatu dira genero ikuspegi batetik eginak eta posiblea litzateke horietan erabilitako metodologietatik ere elikatzea.

Honekin batera ere, eta azkenengo proposamen gisa, arkeologia *engeneratuek* inbestigazioetarako lerro edo bide asko ireki dezaketela uste dut, jarraian, interesgarriak izan zitezkeen ideia batzuk proposatzen ditut, genero kategoriaren osagai kontzeptualekin (genero erlazioak, genero rola, genero estratifikazioa⁵⁶, besteak beste) lotuta daudenak:

53 RUIZ MARTINEZ, A., "Pensar una Metodología Feminista desde la Arqueología: cuando el cuerpo de la mujer toca el cuerpo de la nación", *Feminismos en Antropología: Nuevas propuestas críticas*, Kataluniako Unibertsitatea, 150.orr

54 GONZALEZ RUIBAL, A., "Hacia otra Arqueología: Diez Propuestas", *Complutum*, bol. 23(2), 2012, 111.orr

55 DEL VALLE, T., *Andamios para una nueva ciudad: lecturas desde la antropología*, Catedra, Madril, 1997

56 MARTÍN CASARES, A., *Antropología del Género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales*, Cátedra, Madril, 2008, 50-52.orr

Batetik, arkeologia industrialari dagokionez:

- Emakumeek lan egiten zituzten fabrikak aztertzea (bertako espazioak, antolamendua...) genero rol edo hierarkiari obeditzen dieten aspektuak agertzen diren edo ez, edota, emakumeen zein gizonen identitateak nola sortzen ziren edo zeren menpe sortzen ziren lan harreman eta testuinguru laboral horietan, esaterako.
- Horrekin batera ere, eta arkitekturaren arkeologiaren eskutik, industrializazioak bultzatu zituen hirigintza aldaketek genero ikuspegi batetik ikustea (emakumeentzako espaziorik baldin badago, non, zergatik, gizonezkoen espazioekin konparatu haien arteko erlazioak ulertzeko asmoz).

Bestalde, eta Gerra Zibilaren testuinguruari dagokionez interesgarria izango litzateke, besteak beste:

- Trintxeretan zein fronteetan genero bakoitzaren elementuak ikusgarriak izan daitekeen edo ez, ez agertzekotan honen gabezia hausnartzea ere, bestela, arrazoirik ez ematerakoan badirudi normaltasuneko aspektu bat dela, eta ez du zertan horrela izan behar.
- Errepresio espezifikoak ere aztertu daitezke
- Eraiki ziren azpiegitura eta hirietan genero banaketatik egindako espazioak ziren edo ez, espazioen azterketa, alegia: emakumeak eta gizonak banatzen dituzten espazioak baldin badaude eta zergatik, emakumeen errepresentazioa dagoen, nolakoa den. Aldi berean, kartzelen espazioa ere aztertu daiteke genero bakoitzarekiko espezifikotasunak aztertuz esparru horien barnean, konparatuz.
- Genero erlazioei dagokionean aztertu daiteke, batik bat, genero harremanak eta erlazioak aldatu ziren edo ez, eta zein modutan. Frontean elkarrekin bizi baziren hori ondare materialen ikusgarria den edo ez, konflikto belikoaren momentuetan genero rola eta erlazioak aldatu ziren edo ez...

Hauek guztiak, azken finean, aztertu nahi dugun gizartearen inguruko informazio handiago, zabalago, eta aberatsago bat izateko helburuarekin plazaratzen ditut, adibide xume gisa, arkeologia *engeneratuek* proposatzen dituzten ildotik jarraituz.

4. Konklusioak

Beharrezkoa iruditu zait generoari lotuta dauden lanen inguruko ibilbide eta berrikusketa bat egitea nire helburua edo hausnarketa modu argiago batean aurkezteko xedearekin, gaiaren egungo egoera planteatzeko. Izan ere, badirudi Arkeologia Garaikideari lotutako ikerketetan ahaztu egin dela bai emakumeen presentzia, bai generoaren inguruko azterketa edo inbestigazioak. Jada aurreko orrialdeetan azalarazi dudana bezala, ez dut uste arkeologiaren diziplinan soilik emakumea bisibilizatzearekin bakarrik nahikoa denik baina, garrantzitsua iruditzen zait eta beharrezkoa ere, emakumearen presentziaren faltak ikerketa eta inbestigazioen mugak zein sesgoak agerian uzten dituztela. Horrela, lehengo pasua izan daiteke generoaren inguruko ikerketa eta inbestigazio sakonagoak burutzeko orduan. Hau da, esan nahi dudana da generoaren inguruko ikerketak iraganeko gizartearen ezagutza orokorrago baten alde egiten dutela uste dudala eta aukera asko ere proposatzen dituztela hauek: ikerkuntzaren objektua den gizartearen emakume eta gizonak aztertzea, nola antolatzen dira gizarte erlazioak, botere erlazioak, sozibilizaziorako estrategiak, nola aurkezten al zaigu hori erregistro materialean, zein diren hutsuneak edo mugak....

Bestalde, Arkeologia *engeneratu* hauen proposamenak, azken finean, agerian utzi du inbestigazio zientifiko eta mundu akademikoak dituen hutsuneak modu konstruktibo batean. Teoria eta praktikarako proposamen hauek, feminismoren ekarpen teorikotik datozela kontuan hartuta, mahai gainean jarri ditu Arkeologiak oro har bere inbestigazio jardutean egon daitezkeen gabeziak, batez ere, gaur egungo gizartearen ikuspuntutik. Horrela, proposamen hauek agerian utzi dute diziplina batzuen *presentismo* delakoaren presentzia nabarmena, hau da, arkeologiaren praktika aurrera eramane ohi duten ikerlari askok haien oraingo egoerak markatuta (identitatea, kultura, ideologia...) egin dituzte iraganeko proiektzioak, eta azken finean, horretaz jabetu behar gara diziplina zabal eta zientifikoago bat ere lortzeko. Gure diziplinaren helburuak ikerlari horiek egindako galderak izan dira denbora luzez, eta logikoa den bezala, gure interesen arabera ikasten dugu Iragana.

Esate baterako, ez da kasualitatea kasu askotan Iraganaren inguruan dauden ikasketa gehienak politikaren alorreko edo ekonomiaren alorrekoak izatea, gizonen

tradizionalki bete izan dituzten espazioak baitira eta denbora askoz mundu akademikoan zeuden ikerlarien gehiengoa gizonezkoa zen. Ez da kasualitatea ere, Arkeologia Industrialean egindako ikerketa gehienak praktika industrialari lotuta egotea, eta ez berriz, gizartearen ikerketari, aurretik azaldu dugun bezala. Beste adibide bat jartzearren, tradizionalki Historiaurrea ikertzeko momentuan gizonek industria litikoaz arduratu dira eta emakumeak zeramikoaz, sexuaren arabera lan arkeologikoaren banaketa eginez eta batzuetan iraganeko gizartearen ikuspegi hori elikatuz⁵⁷. Ildo horretatik, arkeologiarako proposamen hauek, *arkeologia engeneratu* bezala identifikatu ditugunak, interes horiek zabaltzean laguntzen dutela uste dut, eta beraz, gaur egun iraganaren inguruan planteatzen ditugun galderak geroz eta anitzagoak, geroz eta aspektu eta esparru gehiago abarkatzen badute, Iraganaren inguruko jakintza eta informazioa ere handitu daitekeela uste dut, eta hori da azken finean Arkeologiaren zein Historiaren azkenengo helburua: Iraganeko gizarteak ahalik eta zabalen, ahalik eta zehatzen, konplexutasun guztiak ahalik eta egokien ezagutzea, eta beraz, transmititzea. Izan ere, jakintza sortze eta berreragite horri ezin dizkiogu limite edo diskriminaziorik jarri, orain dela gutxi arte iraganaren inguruan egin izan diren galdera gehienak eta horiek pizten zituzten interesak gizon txuri eta mendebaldeko interesen arabera izan ohi da horrek dakarren ondorioekin⁵⁸.

Azken finean, nire lanaren bitartez nolabait esateko Arkeologia Garaikidearen baitan sor daitezkeen hutsuneaz ohartaraztea saiatu naiz. Dakigunez, praktika arkeologiko hauek duela gutxi hasi izan dira eta oraindik ibilbidearen hasieran daudela esan dezakegu, hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zait arkeologia praktika hauek, genero perspektiba batetik hartzen ari duten norabide eta joeraz ohartaraztea, ekarpen xume gisa, besteak beste, gure diziplinaren xede nagusia giza esperientziaren osotasuna⁵⁹, edo behintzat, ahal den gehiengoa ezagutzea eta ikertzea bezala ulertzen baitut.

57 RUIZ MARTINEZ, A., “Pensar una Metodología Feminista desde la Arqueología: cuando el cuerpo de la mujer toca el cuerpo de la nación”, *Feminismos en Antropología: Nuevas propuestas críticas*, Kataluniako Unibertsitatea, 150.orr

58 HARDING, S., “¿Existe un método feminista?”, 1998, 18.orr

59 LOZANO RUBIO, S., “El Hombre es la Medida de todas las cosas. El tópico androcéntrico en arqueología y las alternativas metodológicas feministas”, *Estrat Crític*, 5vol.3., 2011, 26.orr

BIBLIOGRAFIA

BERROCAL, M.^a C., “Feminismo, teoría y práctica de una arqueología científica”, *Trabajos de Prehistoria*, 66 2.zbk, 2009, 25-43.orr

CINTAS PEÑA, M., “Género y Arqueología un esquema de la cuestión”, *Estrat Crític*, 6, 2012, 177-187.orr

DEL VALLE, T., *Andamios para una nueva ciudad: lecturas desde la antropología*, Catedra, Madril, 1997

DÍAZ-ANDREU, M., “Historia del Estudio de Género en Arqueología”, *Sagvntvum*, 15, Balentziako Unibertsitatea, 2014, 25-32.orr

FALCÓ MARTÍ, R., *La Arqueología del género: Espacios de mujeres, mujeres con espacio*, Centro de Estudios de la Mujer, Alikanteko Unibertsitatea, 2003

FALQUINA APARICIO, A. et al., “Arqueología de los Destacamentos Penales del Franquistas en el Ferrocarril Madrid-Burgos: el caso de Bustarviejo”, *Complutum*, 2008, bol. 19, 2.zbk, 175-195.orr

GONZALEZ RUIBAL, A., “Hacia otra Arqueología: Diez Propuestas”, *Complutum*, 23(2).bol, 2012, 103-116.orr

GUTIÉRREZ LLORET, S., *Arqueología. Introducción a la historia material de las sociedades del pasado*, Alikanteko Unibertsitatea, Balentzia, 1997.

HARDING, S., “¿Existe un método feminista?”, 1998, 9-34.orr

HERNANDO GONZALO, A., Sexo, Genero y Poder. Breve Reflexión sobre algunos conceptos manejados en Arqueología del Género, *Complutum*, 18. bol, 2007, 167-174.orr

LOZANO RUBIO, S., “El Hombre es la Medida de todas las cosas. El tópico androcéntrico en arqueología y las alternativas metodológicas feministas”, *Estrat Crític*, 5bol.3., 2011, 18-29.orr

MARTÍN CASARES, A., *Antropología del Género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales*, Cátedra, Madrid, 2008

MARTINEZ, L.Mª, BIGLIA, B., LUXÁN, M., FERNANDEZ BESSA, C., AZPIAZU CARBALLO, J., BONET MARTÍ, J., “Experiencias de Investigación Feminista: propuestas y reflexiones metodológicas”, *Athenea Digital*, 14, 2014, 3-16.orr

MARTINEZ RUS, A., “Mujeres y Guerra Civil: Un Balance Hitoriográfico”, *Stud. Hist. Hª. Cont.*, 32, 2014, 333-343.orr

MONTERO GUTIERREZ, J., “Tras las líneas. ¿Arqueología del Conflicto o conflicto en Arqueología?”, *Actas de las Séptimas Jornadas de Patrimonio Arqueológico de la Comunidad de Madrid*, Madrid, 2013, 221-230.orr

MONTÓN SUBÍAS, S., “Arqueologías Engeneradas. Breve introducción a los estudios de género en Arqueología hasta la actualidad”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 242-247.orr

MORAL DE EUSEBIO, E., “¿Es el Sexo lo que la naturaleza a la cultura? Una aproximación queer para el análisis arqueológico”, *ArqueoWeb*, 15, 2014, 248-269.orr

QUIRÓS CASTILLO J. A., BENGOETXEA B., 2010, *Arqueología (III) Arqueología medieval y postmedieval*, UNED, Madrid, 2010

RUIZ MARTINEZ, A., “Pensar una Metodología Feminista desde la Arqueología: cuando el cuerpo de la mujer toca el cuerpo de la nación”, *Feminismos en Antropología: Nuevas propuestas críticas*, Kataluniako Unibertsitatea, 140-155.orr

SORENSEN, M., L., S., “Arqueología del Género en la Arqueología Europea: reflexiones y propuestas”, *Metis Productos Culturales*, 10. Bol, 109-130.orr

VIETRI, L., BRIZ I GODINO, I., “Arqueología de las mujeres: ciencia para la acción social. El aporte de M.^a Encarna Sanahuja Yll”, *Krei*, 11, 2010-2011, 85-107.orr